

PE 2020/42 – 2020Ko martxoaren 27an

Probintzia osoari, jesuitei eta laguntzaileei

Jaunagan lagun maiteok:

2020ko otsailean inork ez zuen aurreikusten eta inori ez zitzaion burutik pasatzen pandemia batek horrelako eragina izango zuenik. Pandemia izateko aukerak urriak ziren eta 2008 aurreko urteetako baikortasunaren antza zuen, inork jaramonik egin ez zien arriskuez ohartarazi gintuzten arren adituek. Duela ia hamabost egun sartu gara espiral honetan. Jaikitzen naizenean nire errutinak erabat aldatu direla ohartzen naiz eta alderantziz bizi naizela sentitzen dut. Ez dut elkarte eta obretara ikustaldirik egin behar, ez dut etxetik irten behar, ez dut hirian pasieran ibili behar. Uste dut denoi gauza bera gertatzen zaigula eta ahalik eta ongien eramaten saiatzen gara, gizalegez eramaten saiatzeaz gain. Eta badakigu inguru batzuetan puntu dramatikoetara iristen ari direla eta ahulezia handia dagoela.

Ignaziotar familia osoari adierazi nahi diot, harreman eta lotura askoren bidez lotuta gauden guztioi, gure obra apostolikoetara, sozialetara edo hezkuntzakoetara gerturatzen den pertsona bakoitzari, langile guztiei eta nire senide jesuitei adierazi nahi diet bizitzen ari garen esperientziak esker onetik jaso behar ditugula, COVIDaren ondorio kaltegarrien aurrean dagoen eskuzabaltasun handiagatik esker ona izan behar dugula. Dela ignaziotar espiritualitateak dela izan behar dugun ikuspegi unibertsalak zentzua eman diezagukete une hauetan.

Ezer baino lehen esan nahi dizuedana oso xumea da: **eskerrik asko**. Espainian eta munduan gero eta informazio kezkarriagoak ematen diren une hauetan, komunikazio telematikorako bideak ireki dira gure artean. Mezu edo dei bakoitzean besteekiko egiazko interesa dago, familiekiko interesa, osasun edo estrategia arloko “frontean” daudenekiko egiazko interesa, jarduerak modu digitalean jarraitzeko interesa... Lankidetzara oso handia izan da eta senidetasun, elkartasun eta berezko erruki sentimenduak agertu dira minaren aurrean, bereziki gaixotasuna zuzenean jasaten dutenen aurrean eta Jainkoarengana bakarrik eta brastakoan joan direnen aurrean. Eskerrik asko obra, plataforma eta sektoreetan harremanetan mantentzen gaituztelako, eskerrik asko ikasleak zaintzeko modua berritzeagatik, migranteak, adinekoak, harreran dauden haur eta gazteak eta beste hainbat lagun harremanetan mantentzeagatik, denbora izan eta Jainkoaren eta Jesukristoren egarri direnak harremanetan mantentzeagatik. Eskerrik asko, hor aurkitzen baitugu garen honen bihotza. Loiolako Ignaziok garai hauetarako egindako eskariaren oihartzuna da: *“nahi dudana eskatzea da; hemen izango da hartu dudana hainbat ongiren barne-ezagutza eskatzea, nik Jainko handia osoro ezaguturik, denean maitatu eta zerbitzatu ahal dezadan (Gj. 233).*

Ikuspegi sakon honetatik, laiko eta jesuita gisa deituta gaude gure bizitzen funtsera itzultzeraz. Ikasle ohiak, egungo ikasleak, familiak, boluntarioak eta langile guztiak geldirik gaude kanpotik beharbada, baina ez barnetik. Orain erakutsi dezakegu gure **inaziotar arima**, denen onerako egiten dugun jarduera bakoitza sustatzen duena, batzuk osasungintzan, besteak ekoizpenean, beste batzuk elkartasunezko zaintzan, ikasketan eta ikerketan, hezkuntzan, laguntzan, otoitz isilean edo distantzian elkartzen gaituen


eukaristian. “Printzipioa eta funtsa” kontenplazioa da, Jainkoaren izaki maitatu gisa egindako kontenplazioa, garen eta dugun guztiarekin egindakoa, gure muga erreal eta gizakoitik egina, orain germen txiki eta hautemanezin batek zauritua. Oinarri sendo hori egun hauetan indartu egin daiteke isiltasunean, “Jainkoak nola begiratzen didan” (Gj. 75) ikusi, epaitu gabe begiratzen didala, askatasuna artikulatzeko deia egiten didala ikusi. Horregatik da beharrezkoa orain geure burua zaintzea, kezkatzea, transzenditzea eta arduradun egitea, geure indarren arabera. Hori guztia da elkartzen gaituen ignaziotar gakoa eta orain hor sakondu eta aurrera egin beharra daukagu, munduaren mesederako.

Amaitzeko, jesuita-inguruetan bizitako edo ikasitako guztiari esker **begirada zabaldu eta unibertsal egin** dezakegu. Gure gizarteetan arraroak beldurra ematen du eta mota askotako mugak egin dira lurraldeentzat, kulturentzat, sistementzat... Beharbada eguneroko lehentasunetan dinamika internazionalistagoak sartu behar ditugu, segurtasunean itxitako tokikotasun txikiagokoak. Orain estatu nazionalak krisiari aurre egiten ari dira, baina egitura politiko eta ekonomiko txikiagoko herrialdeetara iristen denean, drama areagoa izango da seguru asko. Hori konpontzeko, denon elkartasunezko batasun irekia behar da, ekintza global bidezkoagoak eta arduratsuagoak antolatu ahal izateko. Nazioarteko erakundeak indartzean oinarritutako iraganeko ideiak ahultzen ari dira, horrek tentsioa areagotu du potentzien artean eta segurtasun gabezia hazi munduan, eta horrek kalte egiten die pobrenei. Diszernimenduak jarrera irekia eskain dezake eta formula berriak aztertu, norbere buruan ixten den estatalismoa gainditu ere bai. Orain daukan apurra ematea dagokio, Jesusek tenpluan ikusi zuen alargunak bezala, norbere baitatik irteten denaren erabateko irudia (Lk 21, 1-4).

Zer gertatuko den jakiteko goiz den arren, geldialdi ekonomikoaren ondorioz garai zailak datoz, domino efektuaren ondorioz, langabeziak seguru asko gora egingo duelako eta alor guztietan (hasi politikotik eta sozialera arte) neurriak mantso doazelako. Hori guztia dela eta, erasanik handieneko pertsonak izan behar ditugu gogoan, bihotzean eta gure etorkizuneko ekintzetan. Aurrera egiten hasten garenean, haiek izango dira kaltetuenak eta haien bidelagun izan beharko dugu Probintziaren Proiektu Apostolikoaren 5. aukerarekin bat etorritz.

Munduarentzat, aztertu gabeko saila da. Hori dela eta, ignaziotar gakoetatik (azterketa, elkarrekin egindako diszernimendua edo koordinatutako talde-lana) irakurketa sinestuna eskain dezakegu. Arturo Sosa Aita Jeneralaren gonbidapena dakarkizuet amaitzeko, izan ere, otoitz unibertsalagoa eta konprometituagoa egitera gonbidatu gaitu: “Bat egiten dut Jesusen Lagundiaren otoitzarekin, Eliza Katolikoaren otoitzarekin, kristau elizen otoitzarekin, beste erlijio eta sinesteen otoitzarekin, eta elkartasunezko jardueraren bidez laguntzeko modu egokiak bilatu eta aurkitzen dituztenekin”. Zalantzazko uneetan mindutako mundua gara, gizateriarengandik gertuago senti gaitezela eta horren bidez, Jesusen Jainkoarengandik gertuago.

Besarkada beroa,



Antonio J. España Sánchez, S.J.
Provincial de España